Gipuzkoa Mendizale Batza

Abeŕi-etxea

T o l o s a

—

1.936'go. Joŕail̄a.

LACOMBE jaunari.

**PARIS.**

Agur jauna:

GIPUZKO-MENDIZALE-BATZA sortu da. Gipuzkoa´ko Eusko-Gaztedi geienak osatzen dute bera.

Gazre oien lana Euzkadi´ko mendi ta baseŕi zear ibiltzea izan da oraindaño.

Ibilketa ori ordea Abeŕia´rentzat onuragaŕiena izan dedin saiatu beaŕean arkitzen gera. Gazteak gogua ta borondatea badaukate: erakuzal̄erik ez dute.

Oŕegatik, eusko-yakintzaz egin dituzun lanak ezaguturik asko eskertu nizuke zure iritzi beaŕekuakin laguntzen baguzu lan ori egokiena izan dedin.

Ala bada eskatzen dizuguaŕen iru galdera oieri erantzuna emateko:

1´goa.- Eusko Gaztedia´k lanik egin lezake baseŕi ta mendi zear gure izkuntza, edesti, abesti olerki, dantza ta beste eusko yakin gaietzaz?

2´gna.- Zure iritzia baiezkoa bada, esango al diguzu zure ustez lan ori bear bezela nola bete lezateken Eusko Gaztedia´k?

3´gna.- Egunen batean, derizkiotzun lekurik egokienean mendian, baseŕia gertunengogo altzera gaztedi oŕeri yakin gai oietzaz itzaldi bat emateko?

Ondo baderizkiozu erantzutia asko eskertuko nizuke LENBAILEN izango balitz: urte sasoia auŕera dijoalako.

Gai oietako zaletasuna Eusko Gaztedia´n sartu nai degu. Beargatik eskatzen dizut baimena zure erantzuna - balinbada beintzat - "El Dia" izpaŕingian azaltzeko.

Ta onenbestez agurtzen zaitu zure menpeko dan,

[signature]

G. M. Z.´ren lendakaria